

FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUA

2018ko

maiatza



ZER DA GOBERNU IREKIRAKO ALIANTZA?

Gobernu Irekirako Aliantza (OGP Open Government Partnership) nazioarteko ekimen boluntarioa da. 2011n sortu zen 8 herrialderen eskutik, eta **gobernuek beren herritarrekin konpromisoak** ezartzea du xede, **gardentasuna sustatu, herritarrak ahaldundu, ustelkeriari aurre egin eta teknologiak berriak erabil daitezen gobernantza demokratikoa hobetzeko.**

OGPk nazioarteko foro bat eskaintzen du, gobernu-kideen, gizarte zibilaren eta sektore pribatuaren (hots, gobernu irekia lortzeko konpromisoa duten eragile guztien) artean berrikuntzak partekatzeko.

Gobernu irekirako enpresa globala da OGP. 2017ko otsailerako, 75 herrialdek osatzen zuten mundu-mailako ekimen hau (horietako 15 iberoamerikarrak), eta 2.700 konpromisotik gora (ekintza zehatzak) hartu ziren mundu-mailan.

Parte hartzen duten gobernuek **bi urteko ekintza-planak** idazten dituzte, eta, horietan, **konpromiso zehatzak jasotzen dituzte, gobernu irekia lortzeko orduan aurrera egiteko.** Gobernu Irekirako Aliantzak hainbat **irizpide eta gomendio** zehaztu ditu, gobernuek ekintza-plan nazionalen barruan sartzen dituzten konpromisoak zehaztu eta idazteko.



OGP-N PARTE HARTZEKO OINARRIAK

OGPn parte hartzeko, gobernuek argi eta garbi adierazi behar dute **gobernu irekiaren baloreekiko** konpromisoa dutela. Horren isla dira, hain zuzen ere, funtsezko adierazle hauek:

- 1) zerga-arloan gardena izatea;
- 2) kargu politikoen eta goi-mailako funtzionario publikoen diru-sarrerak eta aktiboak publikoki hedatzea;
- 3) informazio publikoa eskuratzeko aukera ematea, eta
- 4) herritarrek kontu publikoak kontrolatzeko orduan parte hartzea.


OGPn parte hartzen duten gobernu guztiek **bi urteko ekintza-planak** egin behar dituzte. Horietan, lortu beharreko **konpromiso zehatzak** jasoko dira.

OGPko Independent Reporting Mechanism - IRM delakoak (Azterketarako Mekanismo Independentek), halaber, urtero ebaluatzen ditu ekintza-plan horiek.

ZEINTZUEK PARTE HARTZEN DUTE?

HERRIALDEAK

Open
Government
Partnership
Euskadi



Países miembros de la OGP Alianza para el Gobierno Abierto (2017)

NAZIO AZPIKOAK

Open
Government
Partnership
Euskadi



Gobiernos subnacionales dentro del programa piloto OGP - 2018-2020

Austin, United States	Basque Country, Spain	Bojonegoro, Indonesia	Buenos Aires, Argentina	Elgeyo Marakwet, Kenya
Iasi, Romania	Jalisco, Mexico	Kaduna State, Nigeria	Kigoma, Tanzania	La Libertad, Peru
Madrid, Spain	Nariño, Colombia	Ontario, Canada	Paris, France	São Paulo, Brazil
Scotland, United Kingdom	Sekondi-Takoradi, Ghana	Seoul, South Korea	South Cotabato, Philippines	Tbilisi, Georgia

EUSKADIK ZERGATIK PARTE HARTU NAHI IZAN ZUEN OGP-N?

Euskadik **gobernu irekia** sustatzeko konpromisoa erakutsi du, honako adierazle hauetan ikus daitekeen bezala:



1) Euskadi liderra da gardentasun-kontuetan

Gardentasunaren atariak finkatuta daude Euskadin, eta Nazioarteko Gardentasuna bezalako erakunde erreferenteek ebaluatu dituztenean, emaitza ezin hobekak izan dituzte:

- Eusko Legebiltzarrak 100etik 90.6 puntu eskuratu zituen 2016an (parlamentuen indizea)
- 2012, 2014 eta 2016an, Eusko Jaurlaritza lehen postuan egon da, 100 puntutik 100 puntu lortuta 2014an eta 2016an, eta azken urte horretan lehenengo postua eskuratu zuen lehen aldiz egin zen ebaluazio kualitatiboan ere (autonomia erkidegoen indizean).
- 2015ean ebaluatutako 3 aldundiek 100etik 81 puntutik gora izan dituzte (Bizkaian 100, Araban 83 eta Gipuzkoan 81) (aldundien indizea)
- 2017an EAEn ebaluatu ziren udal guztiek 100etik 95 puntutik gora eskuratu zituzten (100 puntu Bilbon, Barakaldon eta Gasteizen eta 95.6 puntu Donostian) (udalen gardentasun-indizea)
- Uraren Euskal Agentziak (URAk) 2015ean lehen postua irabazi zuen ura kudeatzen duten organoen ebaluazio zorrotzean, 100etik 94.9 puntu eskuratuta (uraren gardentasun-indizea)

EUSKADIK ZERGATIK PARTE HARTU NAHI IZAN ZUEN OGP-N?

Euskadik **gobernu irekia sustatzeko konpromisoa** erakutsi du, honako adierazle hauetan ikus daitekeen bezala:

- 2) Gardentasunaren, herritarren partaidetzaren eta gobernu onaren gainean oinarritzko araudiak eskatzen duena baino zorrotzagoak diren **arauak** garatzen ditu.
- 3) **Gobernu irekiko planak** dauzka (gardentasuna, parte-hartzea, lankidetzeta, kargu publikoen etika, berrikuntza publikoa...).
- 4) Euskadin **plataformak**, gobernu irekiko atariak, **eskuliburuak eta gidaliburuak...** garatu dira.
- 5) Euskadin arauak, planak, programak... egiteko **partaidetza-prozesuak** sustatzen dira, eta herritarrekin batera sortutako Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria dago.
- 6) **Open data Euskadi** izenekoan gaur egun 4.126 datu-multzo ireki daude: horietatik 186 Open Data Bilbaorenak, 370 Open Data Gipuzkoarenak, eta 121 Open Data Gasteizenak. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiko, Bilboko Udaleko eta Gasteizko Udaleko datuak federatuta daude. Lehen datu-iturria da datos.gob.es-eko katalogoan.



EUSKADIK ZERGATIK PARTE HARTU NAHI IZAN ZUEN OGP-N?

Euskadiren iritziz, indargune horiek izanda, **OGPn parte hartzeak aukera ematen dio:**

- 1) Gobernu irekian **erronka handiagoak** burutzeko
- 2) Hiru lurraldeetako **erakundeak elkarlanean aritzeko**
- 3) **Herritarrekin lankidetzan jarduteko**, beharrianak identifikatu, beharrezkoak diren erantzunak diseinatu eta ezarri, eta sartu diren hobekuntzak ebaluatzeko orduan
- 4) Nazioartean beste eragile batzuekin lankidetzaz ezartzeko, **eta modu irekian ikasi eta berritzeko**
- 5) Bere aurrerapenak eta esperientziak nazio azpiko beste gobernu batzuekin **partekatzeko**



OGP-REN ESTANDARREAN OINARRITUTAKO ANTOLAKUNTZA-EREDUA

Open
Government
Partnership
Euskadi



GRUPO PROMOTOR														
Gobierno Vasco Diputación Álava Diputación Bizkaia Diputación Gipuzkoa Ayuntamiento Bilbao Ayuntamiento Donostia Ayuntamiento de Vitoria Innobasque-Agencia Vasca de la Innovación														
FORO REGULAR														
INSTITUCIONES							CIUDADANÍA							
Gob Vasco	Dip Álava	Dip Bizkaia	Dip Gipuzkoa	Ayto Bilbao	Ayto Donostia	Ayto Vitoria	EUDEL		Innobasque					
FORO ABIERTO														
empleados/as públicos/as				administración institucional				ciudadanía organizada				ciudadanía no organizada		
GRUPOS POR COMPROMISO														
Compromiso 1														
LIDERA: 1/2 MIEMBRO GRUPO PROMOTOR							CIUDADANÍA EXPERTA							
PERSONAL TÉCNICO ADMINISTRACIÓN														
Compromiso 2														
LIDERA: 1/2 MIEMBRO GRUPO PROMOTOR							CIUDADANÍA EXPERTA							
PERSONAL TÉCNICO ADMINISTRACIÓN														
Compromiso 3														
LIDERA: 1/2 MIEMBRO GRUPO PROMOTOR							CIUDADANÍA EXPERTA							
PERSONAL TÉCNICO ADMINISTRACIÓN														
Compromiso 4														
LIDERA: 1/2 MIEMBRO GRUPO PROMOTOR							CIUDADANÍA EXPERTA							
PERSONAL TÉCNICO ADMINISTRACIÓN														
Compromiso 5														
LIDERA: 1/2 MIEMBRO GRUPO PROMOTOR							CIUDADANÍA EXPERTA							
PERSONAL TÉCNICO ADMINISTRACIÓN														

OGP-REN ESTANDARREAN OINARRITUTAKO ANTOLAKUNTZA-EREDUA

Open
Government
Partnership
Euskadi



GRUPO PROMOTOR	<ul style="list-style-type: none">Determina el Plan de difusión y mediosEstablece el modelo organizativoAprueba el Plan de AcciónConsensua las prioridades y las motivaEjecuta los compromisosSe autoevalúaEs evaluado externamente
FORO REGULAR	<ul style="list-style-type: none">Establece su gobernanza (1 reunión /mes)Permite que la ciudadanía organice su proceso selectivo para participarDelibera y propone al comité promotorMonitorea la implementación del planDelibera sobre la autoevaluación y propone mejoras
FORO ABIERTO	<ul style="list-style-type: none">Relación virtual abierta constanteSon personas a invitar a participar en eventos1 vez año se les convoca para el seguimiento del plan
GRUPOS POR COMPROMISO	<ul style="list-style-type: none">Diseño de los proyectos para ejecutar los compromisosImplementación de los proyectosRendición de cuentas al Foro regular y Grupo Promotor

LAN-PLANA



PLAN DE ACCIÓN BIENAL											
2018						2019			2020		
ABRIL	MAYO	JUNIO	JULIO	AGOSTO		AGOSTO					AGOSTO
Primeros contactos con OGP y orientaciones	Autoselección representación ciudadana en Foro Regular	Elaboración del Plan de Acción (y compromisos)		Envío Plan de acción en castellano e inglés	Implementación del Plan de acción						
Diseño del proceso y plan de trabajo	Constitución Foro Regular	Compartir diagnóstico	Operativizar compromisos y plan de acción			Evaluación anual					Evaluación anual
	Adopción de modelo de gobernanza	Compartir propuestas de compromisos y prioridades	Identificación de grupos por compromiso		Reunión trimestral de seguimiento y evaluación						
	Compartir plan de trabajo	Reunión mensual			Instrumentalización del Plan de acción y rendición de cuentas						
	Posible visita OGP										
	Generación del Foro Abierto	Rendición de cuentas/apertura a la participación virtual y presencial... al Foro Abierto									

GOBERNANTZA- EREDURAKO OINARRIAK

Open
Government
Partnership
Euskadi



1. INFORMAZIOA HEDATZEA

1. Webgunea
2. Agirien biltegi irekia
3. Informazio goiztiarra
4. Kontu-ematea (ezarpenaren jarraipena gutxienez 6 hilabetean behin)
5. Guztiari egin dakizkioke iruzkinak

2. ELKARRIZKETARAKO ETA ELKARREKIKO SORKUNTZARAKO ESPAZIOAK ETA PLATAFORMAK

1. Foro erregularra
2. Foro irekia

3. ZEREGINAK EZARRI ETA ERABAKIAK HARTZEA, ELKARLANEAN

1. Gobernantza-eredua ezartzea (estandar etikoetan oinarrituta)
2. Foru erregularrean herritarren eta erakundeen ordezkariak parekidea izatea
3. Herritarren ordezkariak aukeratzea, prozesu gardena eta bidezkoa aplikatuta
4. Herritarren sentsibiltate anitzak bermatzea
5. Foru-erregularraren kontuen berri ematea
6. Foro irekia
 1. Birtuala
 2. Aurrez aurrekoa
 3. Ezarritakoaren jarraipena gutxienez urtean behin

EKINTZA-PLANERAKO OINARRIAK ETA KONPROMISOAK

Open
Government
Partnership
Euskadi



HERRIALDEEN KONPROMISOAK

Konpromisoak 3 eta 5 artean izan behar dira, eta **OGPk zehaztutako bost erronka handietako** gutxienez baten inguruan antolatu behar dira:

Zerbitzu publikoak hobetzea: herritarren esku dauden zerbitzu-mota guztiak (osasuna, hezkuntza, justizia penala, ura, elektrizitatea, telekomunikazioak eta beste edozein zerbitzu-arlo esanguratsu barne) jorratzen dituzten neurriak, zerbitzu publikoaren hobekuntza edo sektore pribatuaren berrikuntza sustatzen dutenak;

Zuzentasun publikoa handitzea: ustelkeria eta etika publikoa, informazioaren sarbidea, kanpainen finantziazioaren erreforma eta hedabideen eta gizarte zibilaren askatasuna jorratzen dituzten neurriak;

Baliabide publikoak modu eraginkorragoan kudeatzea: aurrekontuak, erosketak, baliabide naturalak eta kanpo-laguntza jorratzen dituzten neurriak;

Erkidego seguruagoak sortzea: segurtasun publikoa, segurtasunaren sektorea, hondamendi eta krisien aurreko erantzuna eta ingurumenaren gaineko mehatxuak jorratzen dituzten neurriak;

Erantzukizun korporatiboa igotzea: ingurumena, ustelkeriaren aurkako borroka, kontsumitzailearen babesa eta erkidegoaren partaidetza bezalako gaietan erantzukizun korporatiboa jorratzen duten neurriak.

Konpromisoak garatzeko, askotariko alderdi interesdunek osatuko duten prozesu aholku-emailea eratuko da, eta, bertan, gobernuak era aktiboan inplikatu beharko ditu herritarrak eta gizarte zibila. Herritarren eta gizarte zibilaren partaidetzarik gabe konpromisoak garatzea OGPren printzipio-adierazpenaren kontrakoa litzateke.

EKINTZA-PLANERAKO OINARRIAK ETA EUSKADIKO HAUTAGAITZAREN KONPROMISOAK



***Open Big-Data Euskadi, gure open data eboluzionaraztea erakundearteko big data baterantz.**

*** “Open Eskola”, irekierarako eta herritarrak inplikatzeko gune fisikoak sustatzea. Horiek saiakuntza-laborategi bihurtzeko beharrianak arakatzea.**

*** Jardun publikoaren esparruak eta prozesuak mapatzea, ustelkeria-arriskua gutxitzeko.**

*** Gobernantza esperimentaleko jardunbideak beste erakunde batzuei doitzea, herritarren parte-hartzea uztartuz eta plangintza estrategiko eta etorkizun-eraikuntza partekatuekin lotuz.**

EKINTZA-PLANERAKO OINARRIAK ETA EUSKADIKO HAUTAGAITZAREN KONPROMISOAK



ZER DAGO KONPROMISO BATEAN?

Konpromiso bakoitzak bere paragrafo labur propioa eduki behar du, eta bertan azaldu behar da zein den konpromisoa; nola lagunduko duen gardentasuna handitzen, kontuak ematen edo/eta herritarren konpromisoan; nor egongo den inplikaturik konpromisoa ezartzeko orduan, eta; zer espero duen gobernuek konpromisoa betetzean.

Halaber, kontsultaren bidez egiten diren iruzkin publikoen aurrean konpromiso zehatzek zein erantzun ematen duten ere eztabaidatu beharko litzateke, labur.

Ahal dela, konpromisoetan nahitaez ezarri beharreko erreferentzia-puntuak eta horiekin lotutako kronogramak identifikatu behar dira, eta konpromisoa martxan den urte bakoitzean zer lortuko den adierazi.

EKINTZA-PLANERAKO OINARRIAK ETA EUSKADIKO HAUTAGAITZAREN KONPROMISOAK

KONPROMISO ADIMENTSUAK

Konpromisoak laburrak izatea jardunbide ona da. OGPren herrialde-konpromisoak ezartzean, gutxienez SMART irizpideak bete behar dira. **SMART irizpideei jarraikiz, konpromiso bakoitza honelakoa izan behar da:**

Espezifikoa. Herrialdeko edo eskualdeko gobernu irekiaren helburuak lortzeko ezarriko diren jarduera zehatzak lerrokatzean gobernuak lortu nahi duena argi eta garbi adierazi behar du konpromisoak.

Neurtzeko modukoa. Neurtzeko modukoak diren xede edo oinarriak erabili beharko dira konpromiso bakoitza ebaluatzeko. Erreferentzia-puntuak -ekintza bat neurtu ahal izateko metrikak- beharrezkoak dira bilakaeraren jarraipena egiteko, eta informazio-mekanismo independentea ebaluatzeko prozesuan sartuko dira. Metrika horiek konpromisoetan sortutako emaitzak neurtzeko diseinatuta egon beharko lukete.

Prozesatzeko modukoa. Gobernu onaren emaitzak eta xedeak nola lortuko diren azaldu behar du konpromisoak. Konpromisoan, gainera, gobernuak bere helburua betetzeko erabiliko dituen ekintzen, metodologiaren, tresnen eta prozesuen azalpen laburrak jaso behar dira.

Egokia. Konpromisoak gobernu irekiaren gaiak jorratu behar ditu, gobernu-erreforma zabalagoen ordean. Gobernu irekiaren funtsezko alderdiak dira informazioaren gardentasuna, konpromiso publikoa / herritarren partaidetza eta erantzukizuna. Egindako konpromisoetan, beraz, printzipio horiek islatu behar dira.

Denboran mugatuak. Konpromisoak ez dira zabalak izan behar; aitzitik, epemugak izan behar dituzte kasu kasuko ekintza sustatzeko. Konpromiso orok zehaztu behar du epe errealista bat, hura ezartzeko orduan aurrera doala erakutsi ahal izateko.

